



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Arriaga Antzokiak, Euskal Herriko emakume konposatzaileen ahotsa errebindikatzen duen *Inéditas* kontzertua hartuko du

- Julie Adrienne Carricaburu y Roger, Emma Chacón, Emiliana de Zubeldia eta Anita Idiartborde musika egile handiak izan ziren, baina euren lana ezkutuan egon da denbora larregi.
- Susana García de Salazar pianistak, Eugenia Boix sopranoak, Teresa Valente biolontxelo jotzaileak eta Charo Martinez de Urizar antzezleak ikusgai bilakatu gura dituzte konposatzaile horiek, euren lana interpretatuz.
- Emanaldia datorren asteartean, martxoaren 10ean, izango da, 19:30ean.

Bilbon, 2020ko martxoaren 5an.- Mende luzez konposizioa eremu ia erabat gizonetzkoena izan da, edo, gutxienez, horrela ikusi izan da betidanik. Baina, egia esan, emakume konposatzaile asko egon dira eta daude, eta horien lanak tiraderetan gordeta geratu dira, isilarazita. Mundu osoan gertatu da, eta baita hemen, gure lurrian, ere. *Inéditas*, Arriaga Antzokiak datorren asteartean, martxoaren 10ean, 19:30etik aurrera jasoko duen kontzertuak, ezagutzen ez den lana egin zuten euskal emakume konposatzaile horietako batzuk errebindikatu eta eurekin justizia egin gura du.

Susana García de Salazar pianista da kontzertuaren bultzatzaile nagusia, eta **Eugenia Boix** sopranoa eta **Teresa Valente** biolontxelo jotzailea arituko dira berarekin, **Charo Martinez de Urizar** antzezlearen laguntzarekin. Elkarrekin, egindako lana goratu eta errebindikatu gura duten lau emakume egile euskaldunen errepertorioa ezagutaraziko dute: **Julie Adrienne Carricaburu y Roger (1827-1898)**, **Emma Chacón (1886-1972)**, **Emiliana de Zubeldia (1888-1987)** eta **Anita Idiartborde (1891-1943)**.

Izan ere, *Inéditas* emanaldiak, emakume izateagatik, ez beste ezergatik, bizirik egon ziren bitartean aintzatespen profesionalik jaso ez zuten emakumeen lana eskaintzen die entzuleei; gure kultur ondarearen parte izan arren, artxibategietako apaletan denbora larregi, berriro ere norbaitek entzutearen zain, egon den musika egin zuten emakumeak. Kontzertua emakume konposatzaile horiengan zentratu gura da, ikusgai... eta entzungai, bilakatzeko.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 18 euro (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa – ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307

comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus